

Nola esango zenuke: tropas auxiliares? Latinez badaude bi hitz: auxiliares (maskulino plurala) eta auxilia (neutro plural), soldaduak eliptikoa dago.

Tropa beheko hitza da Sarasolaren arabera baina interneten askoz gehiago agertzen da "tropa laguntzailea", "soldadu laguntzaileak" baino. "Oste laguntzaile" ez da agertzen eta arraroa da.

1936. urtean, "gudaroste" hitzak arrakasta handia izan zuen. Neologismo bat da eta horregatik gaur egun ez da oso erabilia (purismoa...?), "Euzko Gudaroste" eta garai hartako gerra-terminologiarekin erabili ezik. Nik, hala ere, "gudarosteak" = "las tropas" terminoa gogoko dut, ez dakit zergatik, nahiz-eta neologismoa izan.

"Soldadu-osteak" berez ez legoke bat ere gaizki. Oste = gran cantidad de gente, grupo, hueste... "Frantses osteek hiria hartu zuten (Elhuyar), gaztagin-oste izugarriak = grandes huestes de malhechores" (Elhuyar).

"Oste" hitzak, tropa esanahia duela ulertzeko, testu-inguru baten beharra du. Baina "soldadu-osteak" ez du testuinguru baten beharrik. Hori du bere alde. Kontra zer duen? "Tropa" baino luzeagoa dela, eta bi hitz dituela. Baina hori berez ez da horren txarra. "Soldadu-oste laguntzaileak" ez dago gaizki, "oste laguntzaileak" eta "tropa laguntzaileak" gaizki ez dauden bezala. "Soldadu laguntzaileak", ordea, ez dut kasu honetan horren gogoko, "tropa auxiliar"rei buruz ari garela ondorioztatzea horren erraza ez delako.

Batzuetan (askotan) funtzionatu ohi duen trikimailu bat: egizu esaldi baten itzulpena; eta gero, egizu esaldi horren itzulpena baina oraingoan alderantzizko norabidean. Eramaten al zaitu jatorrizko "lekura"? jatorrizko esaldia, hitzez hitz, jartzen al dizu aurrean? Hala izanez gero, ez da seinale txarra... Adibidez:

Tropas auxiliares = tropa laguntzaileak // tropa laguntzaileak = tropas auxiliares

Tropas auxiliares = soldadu laguntzaileak // soldadu laguntzaileak = soldados auxiliares (hemen, adibidez, gauzak nahasteko bidea zabaltzen da, neurri batean behintzat...)

Tropas auxiliares = soldadu-oste laguntzaileak // soldadu-oste laguntzaileak = tropas auxiliares de soldados (hemen berriro antzeko zerbait gertatzen da, leunagoa baina, neurri batean...)

Tropas auxiliares = oste laguntzaileak // oste laguntzaileak = tropas auxiliares (pero también "huestes, grupos auxiliares")

Elhuyarrek hau dio:

Tropa. 1. Tropa. Los soldados y cabos forman la tropa: soldadu eta kabuek tropa osatzen dute.

Ibon Sarasola:

Tropa Mil. oste(ak), soldadu(ak), tropa (Ez du esaten "tropa" hitza beheko hitza denik, behintzat "Zehazki" hiztegian ez da horrela agertzen. Hirugarren lekuan jartzen du, hori bai...).

Beraz, ordenaren arabera, itzulpen hauek ditut gogoko:

1. Tropa laguntzaileak
2. Soldadu-oste laguntzaileak
3. Oste laguntzaileak

“Laguntza-“ eta “laguntzaile” terminoak antzekoak dira, baina hemen ere lehengo “trikimailu” bera erabil dezakegu:

Laguntza-tropak = tropas de auxilio

Tropa laguntzaileak = tropas auxiliares

Bigarrena, zure kasuan, hobe da, hitzez hitzeko jatorrizko esaldira garamatzalako (nire ustez).